


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 253. alea - 2020ko uztaila





**Laster da kalean Oldarkor
taldearen disko berria**



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95




MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



SO URTE
**BURU - ZURI
Taberna**

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean trasoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

AURKIBIDEA

5

KOLABORAZIOA

“Frantzisko Lersundi kapitain jenerala. Kale-izenak gure ahazturaren ispilu”

10

ELKARRIZKETA

Oldarkor taldeak “Ezpata hotsak” diskoa kaleratuko du irailean

12

ELKARRIZKETA

Marga Bastida Lizaso *Debarrak Munduan* ataleko protagonista

14

KRONIKA

LGTBIQ Harrotasun Eguna ospatzeko elkarretaratzea eta poema errezitaldia

16

B. GAZTEA

“Ametsek ez dute mugarik”; argazkiei istorioak asmatu dizkiete ikasleek



Ande Salagi



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Kauldi Iriondo

Publizitatea: Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enbarkuntzaren erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Am(on)a izatea

Askotan, beti ez esatearren, ama izatea zaintzarekin lotu izan dugu. Lagun askok sarritan esan izan didate “amatxo” bat bezala jokatzeko nuela hotza ez pasatzeko arropa gehiago hartzeko esaten nirenean edo norbait lasaitu edota laguntzen saiatzen nintzenez. Bai, amatxo eta ez aitaxo.

Nire amaren garaiko emakume askok aukera izan zuten lana etxetik kanpo egiteko hautua egiteko. Emakumea etxetik irten zen, bai, baina gizonezkoa kasu askotan ez zen sartu.

Uda iritsi eta kaleak umez bete dira, jolas parkean ez bada, hondartzan daude edota udaleku edo ikastaro desberdinetan. Jolas parkean errealitate desberdinak ikus daitezke; umeak zaintzeaz neka-neka eginda dauden eta goiza eserleku berean eserita pasatzen duten zaintzaileak, umeekin jolasteko irrikan dauden amak, sos batzuen truke umeak zaintzen dabilzan neska gazteak, uda beste erremediorik gabe beraien bilobekin pasatzen duten amamak, eta baita denera iritsi nahi duten baina ezinezkoa zaien amak ere.

Azken horiek beren seme-alabei mugikorra muturren aurrean jarrita zer zapatila erostea nahiago duten galdezka ikusi izan ditut eskuetatik jostailuak kentzen zizkietela. Izan ere, arratsalde oso bat galtzen badute beraien seme-alabekin erosketak egiten, ezin izango dira spinning-eko klasea joan edota ez dute garbigailuko arropa guztia plantxatzeko denborarik izango poteora irten aurretik. Gero, beste zaintzaile edo amak beraien umeekin ere jolasten zebiltzala ohartu eta mugikorra gorde eta ama *enroilatu* bihurtzen ziren bat-batean. Bestalde, hondartzara joan eta sorosle edota surf irakasle lanak zeintzuk egiten dituzten ikusi besterik ez dago.

Superwoman konplexua barruraino sartu digute eta badirudi ama izatearekin ez dela nahikoa, ama hoberena izatea lortu behar dela, uneoro tipoa mantenduz. Bestalde, ospitaleko praktikak egitera joan eta zaintza lanetan edota beste sektore prekarizatuetan diharduten 40 urtetik gorako emakumeen gehiengoak antidepresiboak hartzen dituela ikusi dut ohiko tratamendu bezala, badirudi hau dela

“konponbidea”. Hala ere, gizonezko mediku batzuek ez dute ulertzen nola iritsi daitezkeen emakumeak hain “histerika” izatera. Uste baino gizonezko gehiagok ez dituzte berdintasun politikak beharrezko ikusten eta beste batzuek umeak zaintzea ergelkeria dela esango dizute, baina badaezpada nahiago dute hori gure esku utzi eta “lan gogorragoak” egin.

Nik ez dakit ama izatea zer den eta ez dakit inoiz jakingo dudana, baina argi dago ezin dugula gure burua behartu guretzako eraikia ez dagoen sistema bateko erritmoa jarraitzea (gure biologia ondo eza-gutzeko aukera ere eman nahi ez digun sistema), ezin dugu arazoaren zama guztia gure gain hartu. Aurrera egin nahi dugu, baina ez dakit desio horrengatik ez ote garen ari gauza oinarritzkoenak atzean uzten; ez hori bakarrik, jolas parkean amona batzuk entzunak ditut beraien amen geroz eta itxura handiagoa dutela onartuz, gaur egun ere, duela 30 urteko elkarrizketa berak omen dituzte, nahiz eta oraingoan beraien alabekin izan.

Paule Aranberri

iritzia

Handitzen-handitzen



**JON
AMUTXASTEGI**

Zenbat aldiz galdetzen digute txikitik “handiak” garenean zer izan nahi dugun. Ez dakit zuek, baina nik argi neukan. Bi aldiz pentsatu gabe eta hamar urteko haur batekin izan dezakeen ziurtasun guztiarekin aktore izan nahi nuela erantzuten nuen. Orain, gradu amaierako lana amaitu berri, atzera begira jarri eta hamar urterekin nuen ziurtasun horren bila hasten naiz: non ahaztu nuen hamar urteko haurra?

Urteak aurrera eta hamasei urte inguru nituenean antzeko galdera bat egin zidan eskolako orientatzaileak: Zertan egin nahiko zenuke lan “handitan”? Oraindik hamar urterekin nuen ziurtasuna ez nuen galdu, hori bai, aktorea izan beharrean ordurako ohartu nintzen beharbada kamera atzean lan egitea

nahiago nuela. Aurreko galderaren harira gizarte zientzien batxilergoa hautatzeko esan zidan: betiko “letrak”.

Horrela, Ekonomia, Literatura Unibertsala eta Informatika aukeratu nituen batxilergoan. Bi urte geroago, ikasi nahi nuen gradua aukeartzeko eskatu zidaten: Ikus-entzunezko Komunikazioa. Eta lau urte geroago eta gradua amaitu berri ez dakit zer egin. Masterra? Praktikak? Ikastaroak begiratzen hasten zara, eta orain arte atzeratu duzun ingelesezko azterketa hori egin dezakezula pentsatzen duzu, orain ingelesezko “FIRST-a” ez da nahikoa eta. Apur bat galduta eta zer egin nahi dudana ziurtasunez jakin gabe behin eta berriz galdeztzen diot neure buruari: noiz egingo naiz handi?

Frantzisko Lersundi kapitain jenerala Kale-izenak gure ahanzturaren ispilu

Joan de maiatzaren 25ean erail zuen poliziak George Floyd, Estatu Batuetako Minneapolis hirian, eta berriro ere nabarmendu han afroamerikarrek eta immigrante behartsuek jasaten jarraitzen duten arrazakeria eta diskriminazioa. Arrazakeria gaitz gogorra da Estatu Batuetan, baina mundu osoan ere bai, giza historian hamarka mende daramatzana. Floyd-en erailketa dela eta, arrazakeriaren kontrako mugimendua nabarmen agertu da Deban ere ekainaren 13an.

Urteak dira biologiak arraza bereizketa alboratu zuela, giza arraza beste arrazarik ez dela aitortuz. Azalaren kolorea erabili izan da historian zehar esklabotza, bigarren mai-

lako jendea gutxieste, eta aporofobia -jende behartsua diskriminatzea- justifikatzeko. Esklabotza "natural"tzat jo izan zen mendebaldean, 1784an Frantzia iraultzaileak estatu mailan deuseztatu zuen arte; gero, Napoleonek berrezarri bazuen ere.

Esklabotza betirako ezabatu zuen lehen herrialdea Haiti izan zen, 1804an independentzia lortu zuenean. Espainiak 1837an debekatu zuen penintsulan, baina mantendu egin zuen itsasoz handiko lurraldeetan, Kuban eta Puerto Ricon. Eta independentzia eta esklabotzaren aurkako giro historiko hartan heldu zen Frantzisko Lersundi Kubara, kapitain jeneral, 1866ko apirilean, lehenbizikoz irailera arte, eta bigarrenez, 1867ko abendutik 1869ko urtarrilera.

Frantzisko Lersundi Ormaetxea (Valentzia, 1815 - Baiona, 1874) militarra eta politikoa izan zen, debartzat hartua, ama hemengoa zuenez bertan hazi zelako. 1856an, esker onez, errege-bide berriaren eta kaiaren eraikuntzak babestu zituelako, Debako babesle eta ongile titulua eman zitzaion. 1878an Debara ekarri zituzten haren hil-abarrak sendiaren panteoian lurperatzeko.

1848an, progresista matxinatuen errepresioan parte hartu zuen Zaragozan; 1849an, liberal matxinatuen errepresioan Erroman; eta, 1852an, Madrilgo sedizioan. Horri guztiari eta Isabel II.a erreginari zion leialtasunari esker, laster egin zuen gora bere karrera militar eta politikoan, zenbait ministerio eskuratutako arte.

Bere gogor fama eta altxamenduak zapaltzen zeukan espe-rientziarengatik, Kubara bidali zuten, berri kezagarriak baitze- tozen handik.

Kuban, 1866tik 1869ra (1867an izan ezik), kapitain jeneral

izan zen, eta politiko-militar ez ziren auzietan (juridiko, kultu- ral, erlijiosoetan) ere esku hartu zuen, errege-orde balitz bezala. Hala, adibidez, Septembraren II. gobernu probisionalak iraila- ren 29an emandako dekretua (Madril, 1868), "sabel askatasu- na"rena, gurasoak hala izan arren handik aurrera ez zela inor

esklabo jaioko ezartzen zuena, ez zuen aintzat hartu.

Lersundi erreforma- zaleekiko elkarriketaren aurka nabarmendu zen, esklabo tratuen aldeko eliteen babesle zelako, mendebaldeko Kubako azukre-enpresena, eta jatorri espainiarra zuen Habanako burgesiarena.

1868ko urriaren 1ean lehertu zen Carlos Manuel de Céspedes-ek

gidatutako matxinada, eta Lersundi ustekabean harrapatu zuen. Altxamendua antitlasista, antikolonialista eta askatasun nazionalaren aldekoa zen eta "Kuba librea ezin daiteke Kuba esklabozalea izan" eta "Errepublikako biztanle guztiak erabat libreak dira" zituen lematzat, matxinoen artean ere kontraesa- nak izan arren. Lersundik gutxietsi egin zuen altxatuen indarra eta neurri zakarrenak hartu zituen. Espainiako armada kolonia- laren ahultasunengatik milaka boluntarioz osatutako gerra- talde bat sortu zuen, matxinoak akabatzea beste zereginik ez zuena. Hala zioen sarrerako aldarriak: "Kuba espainiarra izan- go da, eta, alde egiterakoan, errauts egina utziko dugu".

1868-1878 bitarteko matxinoek ez zituzten beren helburuak lortu, baina eragin nabaria izan dute Kubaren histo- rian. 1868ko urriaren 10a da Kubako independentziaren sorrera eguna. "Aberriaren guraso" onartua da Céspedes eta, aurrez aurre izan zuen, Kubako historiaren bidean, Frantzisko Lersundi kapitain jenerala. 1902ko

maiatzaren 2an aldarrikatu zuten Kubako Errepublika.

Esklabotzaren aurkako garai historikoan Lersundik, eskla- botza zalea izanik, milaka hildako utzi zituen Kuban. Ezin gara geratu besteren begian, Estatu Batuean, lastoa ikusi eta nork berean habea ikusi gabe, geure historia aztertu gabe. Ezin dugu besterik gabe onartu kalei hemen ongile, baina han esklabo zale izan zirenen izenak ipintzea. Kale-izenek balio sinboliko handia dute. Helburua ez da memoria ezabatzea, salbatzea bai- zik; balio demokratikoak bermatzea.

Arrazakeriaren aurkako borroka elkartasun-borroka da.

Deba arrazakeriaren aurka!

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro



Ander Salegi

**“Ezin dugu
besterik gabe onartu
kalei hemen ongile,
baina han esklabozale izan
zirenen izenak ipintzea”**



HERRIKOAK BERRIKETAN

DEBANATURA, KIMU BERDE BAT DEBA JASANGARRIAGO BATEN ALDE!

Orain, hain zuzen, 13 urte dira Debanatura Elkarteak sortu zela.

Debako eta eskualdeko ingurumenaren alde, dugun ondareari bere balioa aitortzeko zerbait egin beharraz jabetuta, eta beti pedagogiaz edota ingurumen-heziketaz baliatuz, Debako Gela Berdea sortu genuen ingurumen-ekipamendu xume gisa (2007tik Gipuzkoako Foru Aldundiak Ingurumen Heziketarako Ekipamendua du izendatua). Horretarako ezinbesteko izan genuen Debako Kultur Elkartearen laguntza, eta Aranzadi Zientzia Elkartearena ere izan genuen proiektuaren lehenengo pausoak eman ahal izateko.

Horrela, azken urte hauetan ingurumen hezkuntzako programa integral bat garatzen jardun gara: ingurumen heziketako tailerrak eta irteerak egin ditugu ikastetxeekin; sentsibilizazio jarduerak (Zuhaitz Eguna, Hezeguneen Eguna, zabor-bilketak,...); ekoturismoko irteera

gidatuak (Flysch at Night, esate baterako); udalekuak; natur ondarearen kontserbazioa eta ikerketa (Bioaniztasun Fundazioarekin edota Eusko Jaurlaritzarekin espezie arrotz inbaditzaileak deuseztatzeko eta berezko landaretza hobetzeko proiektuak, besteak beste); kultur ondarearen zabalkundea (historiaurreari buruzko jardunaldiak, Kutxako Auzolandegiak,...); ikastaroak (sendabelarrak,...), etab.

Hortaz, gure elkartearen jarduerari esker pertsona kopuru ikaragarria hurbildu da Debako ondarea ezagutzera.

Ikusten den bezala, ez gara natur talde edo talde ekologista bat, Deba jasangarritasunerantz, "trantsiziorantz", bideratzeko tresna bat baizik. Horretarako, bizi-kalitatea, elikadura-, energia-, teknologia- zein ekonomia-burujabetza bultzatzen ditugu, betiere naturarekin orekan. Izan ere, natur inguruneak ekosistema-zerbitzu ugari eskaintzen ditu, bizitza- eta osasun-aseguru direnak.

Hori dena, Deba berdeago batekin amesten dugulako. Ez al zaizue bada iruditzen, natur paradisu batean bizitzeko zorte aparta dugula? Horixe bada, natura eta Debako altxor eta bazter guztiak maitatu eta zaindu behar ditugu!

Egungo egoera

Lehenik eta behin, esan behar dugu denbora luze honetan ez dugula Debako

Udalarekin espero genuen elkarlanik izan. Ingurumenaren zein kulturaren arloan tokiko eragile bat izanik, herriko beste edozein elkarterekin duen harremana gurekin ere izatea espero genuen eta egitasmoak elkarlanean burutzea. Alabaina, ez dugu itxaropenik galduko.

Bigarrenik, Debako Gela Berdea, ingurumen-ekipamendu xume gisa, behin betiko desagertzeko arriskuan dago; izan ere, Kultur Elkartek espaziori beste erabilera edota funtzionamendua eman nahi omen dio, eta Debanaturak bertan dituen material guztiak ateratzeko eskatu digute. Gure nahia Debako natur ondarea interpretatzeko gune bat sortzea litzateke. Inguruko herriek baldin badute, guk zergatik ez?

Gure elkartearen barrenean kide gutxi batzuek tinko dira eta hortxe gure ahalegina. Nork bere lanbidea izan arren, jarraituko dugu, alajaina, Deba berdeago baten alde lanean. Zatoz gurekin!

Eskerrak

Amaitzeko, gudan sinistu duzuenoi eskerrik beroenak eman nahi genizkizueke, maiz zuen animoak behar izan ditugu eta. Eta, noski, herriko familia horiei, urtero legez beren seme-alabek naturaz eta aire libreak gozatzeko Debanaturako jardueretan izena ematearren. Eskerrik asko!



Deban ere EAJ nagusitu da Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan

Inoizko parte-hartzerik txikiena izan da Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan (abstentzioa % 47 izan da). EAJk bere nagusitasuna berretsi du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan (guztira 31 legebiltzarkide lortuz, 2016an baino hiru gehiago) eta EH Bildu izan da boto gehien lortu dituen bigarren indar politikoa (21 eserleku eskuratuz, 2016an baino hiru gehiago). PSE-EEk hamar legebiltzarkide izango ditu; Elkarrekin Podemosek sei; PP eta Ciudadanosek osatutako koalizioak sei, eta Vox alderdiak, lehenbizikoz, bat.

Horiek hala, Iñigo Urkullu EAJko hautagaia izango da itxura guztien arabera berriro Jaurilaritzako lehen-dakaria.

Duela lau urte bezalaxe, Deban

ere jeltzaleak nagusitu dira, 1170 botorekin. Bigarren indarra EH Bildu izan da, 1077 bozkarekin; Itziarren, ordea, koalizioa nagusitu da berriz ere, EAJk baino 105 boto gehiago lortuta.

Hirugarren alderdi bozkatuena PSE-EE izan da (164 boto). Elkarrekin Podemosek 157 herritarren babesa jaso du, PP eta Ciudadanosek osatutako koalizioak 42 bozka izan ditu, Equo-Berdeak-ek 22 eta Voxek, aldiz, 19.

Joan den uztailaren 12an 4.287 lagun zeuden deituta bozka ematera Deban eta Itziarren eta haietako 2.722k eman zuten botoa -abstentzioa % 36,51koa izan da-. Hauteskundearen emaitza guztiak www.deba.eus-en daude ikusgai.

Lau hilabetez luzatuko dira Itziarko biribilguneko obrak

Uztailaren 13an hasi ziren Itziarrera doan GI-3210 eta Itsaspera doan GI-3291 errepideen eta N-634 errepidearen arteko Itziar gaineko bidegurutzean zuzeneko bide-adarra duen biribilgunea egiteko obrak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, lau hilabetez luzatuko dira lanak; URBYCOLAN, SL enpresak egingo ditu.

Obrak amaitu bitartean, uanean uneko lanen arabera, inguruko trafikoa eragingo dutela jakinarazi dute,

“baina trafikoa arautu egingo da eta galtzada horretako erreietako bat behintzat beti mantenduko da irekita”.

Debako Udalak azaldu duenez, 2019ko irailaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, Itziarko N-634 bidegurutzean dagoen lurzorua Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea. Zama handiko ibilgailuek gaur egun dituzten arazoak ekidin nahi dituzte honela eta, errepidea moldatuz, Itziarko sarrera hobetu ibilgailu guztientzat.

Ohiko ordutegira bueltatu da eguneko zentroa, ohiko zerbitzuak berreskuratuz

Uztailaren 9tik aurrera, pandemia egoeraren aurreko ordutegira bueltatu da Debako eguneko zentroa eta ohiko zerbitzuak berreskuratu ditu.

Azken asteotan, ordutegi murriztuarekin aritu da. Ohiko ordutegia berreskuratuta, erabiltzaileei berriz ere eskainiko zaie gosaria eta merienda.

Sarrera eta irteerak mailakatuta egingo dituzte erabiltzaileek, 9:20-10:00ak bitarte lehena, eta 17:10 eta 17:40 bitartean irteera.

Aldaketa bat badago, aurreko egoerarekiko, alegia, garraio-zerbitzua baserrietan bizi direnei baino ez zaie eskainiko.



BINGEN ESTURO

Itxialdiaren irekialdia

Itxialdian etxe barruko ekintza asko egin ditugu, jarduera berriak ezagutu eta gorputzari estimulu berriak eman dizkiogu. Ni neu etxetik aritu izan naiz Youtube, Zoom eta Instagram bidez klaseak ematen eta ezustean esperientzia aberasgarria izan da. Hori dela eta, ondorengo lerrootan luzaketen gaiari helduko diot. Izan ere, jarduera fisikoaren baitan indarra eta erresistentziari dagokionez asko dakigu, luzaketen gainean, berriz, ez-ezagutza handia dago.

Itxialdian, horren inguruan hainbat ikerketa irakurri ondoren, sailkapen bat garatu dut luzaketa bakoitza aztertuz eta zertarako balio digun adieraziz. Hona hemen batzuk: luzaketa aktibo, pasibo, estatiko eta dinamiko, isometriko, karga aktibodun, balistiko, PNFak, etab.

Nabarmendu nahi nuke ez dagoela luzaketa txar edo onik, gure artean hain zabaldua dauden usteen gainetik, eta horietako bakoitzak erabilera jakina duela.

Horietan gehiago sakontzea beste baterako utzita eta ikerketen laburpen gisa, mugikortasuna lantzea izango da beti erabakirik egokiena gorputza irekitzen lagunduko digulako.

Mugikortasuna, gaitasun inboluntarioa da: gaitasun handienarekin jaiotzen gara eta bizitzak aurrera egin heinean galtzen goaz. Beraz, gure lana hori ez galtzea edo mantentzea izango da.

Gaitasun hori landu ezean, gorpuztza itxi egingo zaigu, zahartzaroko artikulazio-arazoak lehenago etorriko dira eta lesio txikiak sortuko dira mugikortasun gutxiko tokietan.

Horrenbestez, luzatzearekin zalan-tzarik izatekotan, mugikortasuna landu.



Estibaliz Beltran de Heredia


Ostolaza Udal Liburutegiko arduraduna

Liburu artean

Aurten ere liburu sorta aurkeztu nahi dizuet, 12 helduentzat, 7 haurrentzat eta 5 gaztetxoentzat. Aholkatzen diren liburu guztiak liburutegian aurkituko dituzue; hala ere, gure katalogoan kontsulta egiten baduzue, libu-

ruetz gain filmak, diskoak eta aldizkariak ere topatuko dituzue. Jarraian dituzue bilaketa egiteko webguneak: www.liburubila.eus eta www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua. Gozatu irakurketaz eta uda on!

HAURRAK / GAZTEAK



Txominen eskola (Liesbet Slegers). Ibaizabal. 0 urtetik aurrera



Ibaian behera (Magnus Weightman). Tarttalo. 0 urtetik aurrera



Malkoak (Sibylle Delacroix). Tarttalo. 0-5 urte




Bisitari bitxia (Gracia Iglesias). Mezulari. 6-8 urte



Joanes eta kanpaiak (Pabxi Zubizarreta). Ibaizabal. 6-8 urte



Tximeletak hondartzan (Maixa Zugasti). Erein. 8-10 urte




Onin eta sorginen sekretua (Ibon Martin). Travel Bug. 10-12 urte




Gezurren habia (Jabi Elortza). Elkar. 12 urtetik aurrera




Haltzaren muinoa (Anjel Lertxundi). Erein. 12 urtetik aurrera



Benetako munstroak: planetari mehatxuka (Mari G. Rohde). Tarttalo. 12 urtetik aurrera



Begiak zerumugan (Miren Agur Meabe). Elkar. 12 urtetik aurrera



Harald eta Igniren altxorra (Matthieu Brivet). Harriet. 12 urtetik aurrera

HELDUAK



Ene baitan bizi da (Maddi Ane Txoperena). Elkar.




Haize-lekuak (Amaia Telleria). Alberdania.




Funambulisten beldurra (Karlos Gorrindo). Erein.



Ibaiertzeko ipuina (Oihane Amantegi). Elkar.



VHS (Oier Guillan). Susa.



Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak (Irene Solà). Alberdania.



Kikarakada (Donostiako Komunikabideak). E.M.



Euskal Herria itsastarra: San Juan baleontzitik (Albaola). Elkar/Albaola.



Aralar: mundua leku den lurra (Lorea Agirre). Erein.



Izurria hemen (Harkaitz Cano/Foku). Gara.



Pentsamenduaren historia Euskal Herrian (Joxe Azurmendi). Jakin, 2020.



Ekologista naiz baina... (Gorka Egia Arregi). Circulo Rojo.

Bertso saioa, "Sagartu" kale-ikuskizuna eta Izaki Gardenak-en kontzertua ikusgai Iturri Ondoan egitasmoaren baitan



Iturrian Jazz emanaldiko une bat

"Matriuska", "Iturrian Jazz" eta "Begiradak" emanaldiez gozatzeko aukera eskaini du jadanik aurtengo Iturri Ondoko programak, baina beste-lako hiru hitzordu ere izango dira aukeran abuztuaren 7ra bitartean, ostiralean, Euskal Jolas pilotalekuan.

Uztailaren 24an, adibidez, Unai Iturriaga, Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza eta Julio Soto bertsolari ezagunen saioa egongo da; Unai Elizasu ari-tuko da gai-jartzaile. Astebete beranduago, hilaren 31n, Oinkari Dantza Taldeak eta Hika Teatroa konpainiak

"Sagartu" eskainiko dute, zuzeneko musika, antzerkia eta dantza uztartzen dituen kale-ikuskizuna. Eta, abuztuaren 7an, berriz, Izaki Gardenak musika taldea igoko da oholtzara, bere zuzeneko kontzertuarekin Iturri Ondoan egitasmoaren zazpigarren edizio honi amaiera emanez.

22:00etan hasiko dira emanaldi guztiak, Euskal Jolasen, eta edukiera betetakoan atea itxi egingo dela azaldu du Udalak. Era berean, COVID-19a dela eta ezarritako jarraibideak kontuan hartzeko eskatu die Udalak herritarrei.

Azken agur hunkigarria egin diote Pedro Mari Alustizari

Uztailaren 12an Pedro Mari Alustiza Bernal hil zen, 66 urte zituela. Herriko hamaika kultur jardueratan murgildutako langile nekaezina zen Pedro Mari. Kultur Elkartean hamarkadetan zehar egindako lanagatik, Danborradako kidea izanagatik edo bere bideo-zaletasunagatik herrian oso ezaguna izan den pertsona.

Hileta elizkizuna Debako elizan egin zen hilaren 13an eta asko izan ziren familiari dolumina agertzera eta Pedro Mariri azken agurra ematera bertaratu ziren herritarrak. Hiletaren amaieran, Danborradako lagunek "Debako martxa" interpretatu eta omenaldi hunkigarria egin zioten Alustizari.



GOIZANE AIZPURUA

Patioa

Izenburua irakurtzean Andaluziako konturen bat kontatzera natorrela dirudi. Baina pixka bat hurbilago ditugun kontuekin nator. Egia esan oso gertukoa. Eraikin baten bihotzean, bi horma alturen artean, izkutuan dagoen zerbait bereziaz ari naiz.

Ez nituen ezta zortzi urte izango ilunabarretan amamarenera etortzen nintzanean. Egurrezko banketa txikia sukaldedeko leihora hurbiltzen zuen eta ni trebe leihora igota patiora irteten nintzen. Amamak urez betetako pitxarrak ematen zizkidan sukaldetik landareak urezta nitzan. Handiak ziren, bai patioa eta baita landareak ere. Guztia berde kolorez tindatuta bezala gordetzen dut oroimenean eta goian bi horma alturen amaieran zeru urdina. Berdea lurreko goroldioa eta berdea garoa lurrezko lorontzietan.

Komuneko leihora banketatxoa hurbilduta trebe leihora igo eta patiora irteten naiz. Bertako soketan arropa eskegitzen dut. Badakizue, barruko soketan barruko arropa, gero praka eta kamisetak eta azkenik izarak, barruko arroparen lotsak estaltzeko. Baina itxialdi garaian soketako arropak jaso genituen eta abestiak zein berriketaldiak eskegi genituen. Urez betetako pitxarraren ordez melodia bete gitarrarekin irten nintzen patiora, eta leiho bakoitzean gonbidapena gogoz jaso zuten auzokideak loratu ziren. Larunbatero.

Elkarbanatu genituen abestiak, zalantzak, beldurrak eta egonezinak. Garagardo eta ardoz egindako osasunaren aldeko topek erauzi zituzten banatzen gintuzten hormak. Eta eskertu beharrean nago, bihotzez.

Ez nuke beste salbuespen egoera baten zain egon nahi bertan ditugun zoko ederrez berriro gozatu ahal izateko.



OLDARKOR musika taldea

Arg.: Kauldi Iriondo

“Gitarra potenteak, melodia ilun eta melankolikoak, eta indarrez betetako letrak dakartza disko berriak”

2013an egin zituen lehen urratsak Oldarkorrek, duela lau urte kaleratu zuen lehen diskoa eta irailean plazaratuko du bigarren lana, *Ezpata hotsak*, zortzi abestiz osatutako LPa. Esku artean daukaten proiektuaz ez ezik, orain arteko bideaz eta etorkizunaz ere aritu gara *Berriketan Oi!* musika egiten duen boskote gaztearekin.

Gazteak izan arren, urteak daramatzazue oholta gainean. Noiz eta nola sortu zen Oldarkor?

Lehen pausoak 2013an eman genituen, 14-15 urte genituela. Treku, Yarza eta Ekaitzek askotan komentatu izan genuen Oi! talde bat egingo genukeela, baina instrumentuak falta zitzaizkigun; Treku zen gitarra jotzen zekien bakarra. Egun batean, Treku gitarra eraman zuen Gaztelekura, eta abestiak jotzen hasi zen, Ekaitzek abesti horiei ahotsa jartzen zielarik. Beraz, bazen ordua Yarzak baxua lortu eta taldea osatzeko. Horrela, hirukote bezala entsegu batzuk egin genituen. Bertsioak bakarrik jotzen genituen (RIP, Hell Beer Boys, Des-Kontrol, Decibelios, Eskorbuto...). Orduan, azpeitiar bat ezagutu eta gurekin bateria jotzen hasi zen. Hurrengo pausoa, taldeari izena jartzea izan zen. Proposamen batzuk bota eta gero, Oldarkor izenarekin gelditu ginen, indartsua, hitz bakarrekoa, eta euskaraz delako, azken urteetan modan baitago ingelesezko izen kutre eta ez-orijinalak jartzea.

Zeintzuk osatzen duzue taldea?

Gaur egun ondarrutar batek eta lau debarrek osatzen dugu taldea; Ion

Urdangarin eta Alex Treku gitarretan, Julen Ortega baterian, Jon Yarza baxuan eta Ekaitz Zubimendi ahotsean. 2017ra arte laukote gisa ibili ginen. Kontzertu ugari eman eta disko bat kaleratu arren, 2017ko abenduan amaiera izan zuen formazio honek, eta taldea indargabetuta gelditu zen. Hilabete batzuk geroago, ordea, motibazioa itzuli zitzaigun, eta inoiz baino indartsuago eta oldarkorrago bueltatu ginen. Urdan eta Ortega sartu ziren taldera eta taldearen izaera, soinua eta jarrera indartu genituen. Lehen kontzertua 2019an eman genuen Antiguoko frontoian, eta ordu tik aurrera beste ugari etorri dira.

Nola definitzen duzue zuen musika-estiloa?

Oi! musika egiten dugu, eta kaskamotzak gara. Bigarren hori azpimarratzekoa da, izan ere, askok diote musika-estilo hau gorantza doala, baina non daude kaskamotzak? Non botak? Non herria inguratzen zuten pintadak? Eta probokazioa? Argi dago garaiak aldatzen doazela, eta tokatu zaigun garai honetan badirudi garrantzitsuagoa dela zer argazki igotzen duzun Instagramera, kalean zer esan edo egiten duzun baino. Hala ere, guk garbi daukagu,

kaskamotzek kaskamotzentzat egindako taldea da Oldarkor, eta gure musika kaleko musika da.

Zeintzuk dira zuen erreferente musikal garrantzitsuenak?

Oso musikazaleak gara eta musika-estilo asko entzuten ditugu (Oi! musika, punka, hardcore-a, heavy metal-a...) eta egiten dugun musikan hori islatzen da. Hala ere, gure erreferente musikalak Oi! eta punk taldeak dira; bai euskaldunak eta bai atzerrikoak, bai gaur egungoak eta bai duela 40 urtekoak, eta horrek emaitza kuriosoa ematen du. Zehatzago esanda, 80ko hamarkadako Ingalaterrako taldeak eta beren jarrera maite ditugu (4 skins, Cockney Rejects, Blitz...), 80ko hamarkadatik aurrera Estatu espainiarrean sortuak (Último Asalto, Suburban Rebels, Hetairoi, Decibelios, Oi! The Arrase...) eta, nola ez, gure nazioak 80 zein 90eko hamarkadetan emandako talde handiak (Vómito, RIP, Eskorbuto, Cicatriz, MCD, Zakarrak, Puñetazo...). Bukatzeko, beste herrialde batzuetako taldeek ere markatu gaituzte: Agent Bulldog talde suediarrik, Nabat italiarrak, Camera Silens, Snix, Bleach Boys... frantziarrak, eta abar.

2016an kaleratu zenuten lehen diskoa, "Kalean hezi, kalean hazi", eta orain bigarrena prestatzen zabilazate, "Ezpata hotsak". Zer dakar lan berriak?

Ezpata hotsak LPa 8 abestiz egongo da osatuta: disko zaharreko abesti baten moldaketa bat, 6 abesti propio eta bertso bat. Dedicazio handia jarri diogu diskoari, bai abestien aldetik, bai diseinuaren aldetik... Gainera, azaleko marrazkia Jose Ignacio Trekuk egin digu eta diskoari izaera propioa, indarra eta iluntasuna ematen dio. Bestalde, Valentziako eta Suediako zigiluek aterako dute diskoa, beraz, munduko txoko desberdinetara iritsiko da.

Berriki aurkeztu duzue interneten "Otso bakartiak", diskoaren aurrerapenkanta. Aurreko diskoak baino doinu gogor eta ilunagoak ditu...

Lehen diskoko abestiak egin genituenean 14-15 urte genituen, abestiak landu gabeak ziren, eta soinua ez genuen batere definituta. *Ezpata hotsak* lanerako, ordea, soinua definitu nahi izan dugu; gitarra potolo eta potenteak, melodia ilun eta melankolikoak, eta indarrez betetako letrak.

Prest daukazue disko osoa? Noizko aurreikusten duzue kaleratzea?

Oraindik gauzatxo batzuk gelditzen zaizkigu diskoa finikitazeko. Hiru edizio aterako ditugu: normala, mugatua (azal desberdina izango du) eta *Test Pressing*-a (oso edizio mugatua, fabrikatik proba moduan bidaltzen dizkiguten diskoekin osatua, eta azal desberdinekoa). Ez daukagu presa handirik, oraindik ezingo dugu diskoaren ganorazko aurkezpen bat egin... Diskoa irailerako espero dugu.

Binilo formatuan plazaratzeko asmoa duzuela jakin dugu, zergatik aukeratu duzue formatu berezi hori?

Noski, biniloan aterako dugu, oso binilozaleak garelako. Kolekzionatu egiten ditugu. Disko bat esku artean hartzen duzun lehen momentua bakarria da, baita diskoa zure *tokadiskos*-ean pintxatzen duzun momentua ere. Bestalde, belaunaldi zaharretako soinua herentzia da biniloa. LP formatuan bakarrik aterako dugu *Ezpata hotsak* diskoa, izan ere CDa oso formatu kutrea iruditzen zaigu.

Biniloa erosteko aukeraz gain, disko berrira entzuteko beste aukerarik izango al da?

Plataforma digitaletan ere entzungai izango duzue.

Nolakoa izan da bigarren diskoaren sormen-prozesua?

Nahiko azkar eta ondo joan da. Abestiak bakarrik atera dira, eta barrutik atera zaizkigun bezala doaz diskoan; amorruez, indarrez eta sentimenduz josita. Treku eta Urdanek gitarren baseak egin dituzte, Ekaitzen esku letrak, eta hori guztia lokalean matxakatu dugu denon artean, bakoitzak bere ekarpenak eginez.

Eta produkzioa?

Bada denboratxoa Treku grabazioetan saltseatzen ibili dela, eta disko hau entsegu gelan grabatu dugu. Grabazio hau Bartzelonara bidali genuen eta bertan egin dizkigute nahasketak eta masterra. Emaizarekin oso gustura gelditu gara. Bi zigiluk aterako dute diskoa: Disco Nightmare (Valentzia) eta Pretty Shit Town (Suedia). Estilo honetan oso disko onak atera dituzten zigiluak dira; beraz, talde handiekin partekatuko ditugu. Gainera, zigilu kanpotarrak izanda, diskoa asko zabalduko da atzerrian.

Kaleratu berri den "Kaosa Euskal Herrian" punk-oi! bilduman parte hartu duten Euskal Herriko 25 taldeetako bat izan zarete. Zer nolako esperientzia izan da halako proiektu batean parte hartzea?

Horrelako proiektuak oso ondo daude, bai gure herrira begira, bai kanpora begira, bertako taldeak entzutera emateko. 25 taldek osatzen dute diskoa, eta estilo aldetik nahiko zabala da. Gainera, aspaldian ez da ikusi talde desberdinek elkarlanean aterata-

ko zerbait, badirudi bakoitza bere aldetik doala, eta alde horretatik poza ematen du disko hau kalean ikusteak.

Osasun-krisiak kontzertuak emateko aukerak mugatu ditu... noiz izango dugu zuen zuzeneko bat ikusteko aukera?

Guk, bereziki, hilabete potenteak geneuzkan aurretik: kontzertu asko lotuta, eta horietatik bi Euskal Herrikan kanpo. Gainera, abuztuan Bartzelonan egiten den *Beach, Beer and Chaos* jaialdian jotzen genuen: sarrera guztiak salduta zeuden, baina bertan behera gelditu da. Hurrengo kontzertua ez dakigu noiz izango den, baina baimena eman eta berehala izango dela ziur. Gogo handiz gaude agertokiei, tabernei, aretoei... sua emateko.

Zeintzuk dira taldearen etorkizuneko proiektuak?

Etorkizunerako plan bakarria egurra ematea da. Lehenik eta behin, *Ezpata hotsak* diskoa atera eta ganoraz aurkeztu Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo. Eta hortik aurrera, abesti gehiago egin, disko gehiago atera, eta bizitza luzea eman hainbeste maite dugun honi.

Aipatu ez dugun beste zerbait nabarmendu nahiko zenukete? Zuena da azken hitza...

Eskerrik asko elkarrizketa hau eginez gutaz gogoratzearen. Kaleko doinuentzat garai onak izan ziren herri honetan duela urte batzuk, hala ere, hemen gaude, eta azken belaunaldia bagara ere, ez gara inoiz hilko. Kaleetan ikusiko dugu elkar!





Debarrak munduan

MARGA BASTIDA LIZASO

Ingelesa hobetzeko helburuz iritsi zen Marga Bastida Ingalaterrara duela hogeit bat urte eta han jarraitzen du oraindik ere. 41 urte ditu orain, Knaresborough herrian bizi da, Yorkshire eskualdean, eta Ingeniaritzako konpainia batean dihardu lanean, esparru komertzialean. Gustuko du ibiltzea eta korrika egitea, baita zinemara joatea ere. Etorkizunean bizitzera Debara itzuliko dela ere kontatu digu elkarrizketa honetan.

Non zabilta gaur egun? Zergatik?

Gaur egun Ingalaterran bizi naiz, nire senarra eta bi semeekin. Knaresborough herrian bizi gara. Iparraldean dago, Yorkshire eskualdean, Harrogate ondoan.

Zerk eraman zintuen hara?

Ingalaterrara 2000. urtean etorri nintzen nire ingelesa hobetzeko. Gasteizen egin nuen lehen urtea Ingeles Filologia ikasten, baina nire ingelesa hobetu nahi nuen eta Bristolera joan nintzen. Han unibertsitatera joatea erabaki nuen eta nire gradua bertan bukatu nuen. Bristol en 4 urte egin nituen eta unibertsitateko gradua bukatu eta gero Leeds-era joan nintzen. Leeds-en Nazioarteko Negozioetan Masterra egin nuen -International Business-.

Lanean hasi nintzen eta urte batzuk pasa eta gero David eza-gutu nuen 2009. urtean. 2012an Deban ezkondu ginen eta orain gure bi semeekin bizi gara, Santi, 5 urtekoa, eta Lukas, 3 urtekoa.

Zertan zabilta uneotan?

Pandemia egoerarekin Ingalaterran oraindik etxean gaude, etxetik lan egiten. Pixkanaka komertzioak eta enpresak lanera itzultzen ari dira. Uda honetan Debara joateko aukera izango dugulakoan gaude, edo itxaropen hori dugu, senarrak eta umeek Deban primeran pasatzen dutelako. Ahal dugun guztietan joaten gara Debara, urtean hiru aldiz bai behintzat, senitatekoak bisitatuzera.

Espero zenuen bezalakoa da Ingalaterra? Zerk harritu zintuen?

Ingalaterrara etorri nintzenean, harritu ninduen lehenengo gauza bertan dagoen kultura anitza izan zen. Herrialde ezberdinetako jende asko bizi da eta ez nuen hori espero. Zoragarria iruditu zitzaidan beste kulturak eta tradizioak bizitzea eta mundu osoko jendea ezagutzeko aukera izatea. Horietako asko, gaur egun, nire lagunak dira.

Laburrean

Paisaia bat:

Itziartik Debarako bidean
ilunabarrean itsasora begira

Usain bat:

txurroen usaina

Zapore edo jaki bat:

pintxoak

Gustuko ditut...

itsaskiak

Ez ditut gustuko...

gezurrak

Amets bat:

hiru astean, munduari

buelta emateko bidaia egitea



Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Txikitan euskaraz aitarekin, Debako eskolan, eta Zaldibarko osaba-izeba eta lehengusuekin egiten nuen, aitak Bastidatarren baserrira eramaten gintuenean.

Gaur egun, Ingalaterran bizi naizenez, askoz gutxiago hitz egiten dut euskaraz. Baina aitaren aldeko izeko eta lehengusuekin WhatsApp taldea daukagu eta, hor bai, euskaraz hitz egiten dugu beti. Nire ahizpak, Anek, euskarazko ipuinak eta abestiak bidaltzen dizkigu eta horiekin euskara berreskuratzen saiatzen ari naiz, baita semeei zerbait irakasten ere.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Galesen galesa hitz egiten dute. Galesa hizkuntza gaelikoa da. Oso ezberdinak dira galesa eta ingelesa, euskara eta gaztelania bezala. Eskozian eta Irlandan ere beraie hizkuntzak dituzte.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Debatik gauza asko ekarriko nituzke. Dena hurbil dago eta horixe ekarriko nuke hona, gauzen arteko hurbiltasuna. Bost minutuan etxetik dendara jaitea edo kafesne bat hartzeko aukera izatea.

Haurrek jolasteko zumardia eta jolas-parkea ekarriko nituzke. Era berean, neguan, eguraldi txarra egiten duenean, 0-5 urteko haurrentzako jolas-parke estalia ere ekarriko nuke; *mini park* baten antzekoa, jokoduna eta gurasoek, mahaietan eserita, kafesnea hartzeko gunea duena.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Momentuan ez, baina senarrak eta biok beti esan izan dugu Deban biziko garela etorkizunean.

“Ni nora euskara hara” lemak irabazi du Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketa



Jesus Mari *Ketxus* Amasorrainek irabazi du euskararen aldeko lema lehiaketa, esaldi motz bezain erakargarriarekin: “Ni nora euskara hara”. Herrian bertan gelditu da, beraz, Zuhatzak lehenbizikoz antolatutako ekimenean jokoan zegoen saria, bertako sortzaileen kultur produktu ezberdinekin osatutako ota-rra. Deban bizi da Amasorrain, 49 urte ditu eta, besteak beste, *Berriketan* aldizkariko ohiko kolaboratzailea da, iritzien atalean.

Harrera beroa egin diote herritarrek lehiaketari eta hamar-naka lemaren artean gailendu da azkenean Amasorrainena, haren alde egin baitu Zuhatza elkarteko zuzendaritza-kideek osatutako epaimahaiak. Hori hala, uztailaren erdialdean jaso zuen saria irabazleak.

Lehiaketan saritutako lema daraman material berria salgai jarri berri du Zuhatzak azken asteotan. Pare bat astez egon da martxan aurre-salmenta, baina oraindik ere egongo da aukera kamisetak eta poltsak erosteko, uztailaren 30ean, eta abuztuaren 7an eta 8an salmenta-postua jarriko baitute plaza zaharrean. 12 euroan saltzen dira kamisetak eta 8 euroan poltsak. Eskaintza berezia dute Zuhatza elkarteko bazkideek (bi euro merkeago kamisetak, eta 15 euroan poltsa eta kamisetaz osatutako paketea).

Irabazitako otarrearen edukia:

- >Nerea Loiolaren *Harri bat poltsikoan* eta *Azken lanhütarra* (haur literatura)
- >Goizane Aizpuruaren *Afasia Airlines* (poesia)
- >Kattalin Mínerren *Moio: gordetzea ezinezkoa zen* (Tene Mujika Beka)
- >*Debako kondairak* (bilduma)
- >F.M. Samariegoren “*Eskola Olerkiak*”
- >Debako Trikitilari Taldearen *Inor ez da perfektua*
- >Jokin Lasaren *Hamaika gezur*
- >*Biga, itsasertzeko doinuak*
- >Jon Ostolaza eta Alejandro Irizarren *Osto eta Ale*
- >Huntzaren *Xilema*
- >Debarock kolektiboaren *Hamar urtez musika eredia iraultzen*
- >Egurra Ta Kittoren *Hamar urte*
- >Brigade Locoren *Ekintzek dute hitza*
- >Arte Eskola Bizirik kolektiboaren grabatua (Jose Ignacio Treku)
- >Arkatza liburu-dendan erabiltzeko 50 euroko bono kulturala
- >Zuhatza elkarteko urtebeteko bazkidetza
- >*Ni nora euskara hara* kamiseta eta poltsa

Zuhatza euskara
elkartea

MATERIAL BERRIA SALGAI

Uztailak 30, osteguna | 19:30
Abuztuak 7, ostirala | 19:30
Abuztuak 8, larunbata | 12:30

PLAZA ZAHARREKO POSTUAN

EZ ZATEZ GABE GERATU!

Heldua / Umea
NEURRI GUZTIAK

HELDUA
ZABALA

HELDUA
ESTUA

UMEA

POLTSA

LGTBIQ Harrotasun Eguna ospatzeko elkarretaratzea eta poema errezitaldia



Ekainaren 28an LGTBIQ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatu zen mundu guztian zehar. Deban ere, egun horren harira, Foruen plazako kontzentrazioaz gain, Debako Talde Feministako kideok “Queerteatzen” poema-errezitaldia antolatu genuen. Mari Garamendi eta Mikel Uribelarrea izan

ziren Kultur Elkarteko plazan saioa eskaini ziguten poetak. Ederra saioa! Hori dela eta, bertan entzun ahal izan genituen eta zer pentsatua ematen duten Mikel Uribelarrearen hitzak ekarri nahi izan dizkizuegu gaurkoan –behean dituzue irakurgai–.

Debako Talde Feminista

CISFORIA

Disforia ez da nirea. Disforia dira besteak. Disforia da medikuek esaten dizutenean zu transexuala bazara zure gorputza oker dagoela. Disforia medikuntza-sistema da. Disforia da zure hurbileko norbaitek hiru urtez zure izen berriarekin ezagutu arren oraindik telefonoan aurreko izenarekin gordeta zaitutenean. Disforia da zu hetero izatea espero dutenean baina trans izaterakoan hetero izatea exijitzen dizutenean.

Disforia da “nik ez nuke trans batekin txortan egingo” entzuten duzunean. Disforia da fisioterapeutarengana joan eta zure gorputza erdi biluzik ikusten duenean Kattalin Miner ezagutzen duzun galdetzea eta gero saio osoan bere buruaz beste egin zuen bere lagun transaz hitz egiten duenean. Disforia da okindegiko saltzaileak emakume bezala deitzen dizutenean zuk ezetz insistitu arren. Disforia da aldagela batean edo bestean edozer gauza gertatzearen beldur zarenean. Disforia da lan-elkarriketetan “ez duzu gure perfilarekin bat egiten” esaten dizutenean behin eta berriz. Disforia da beldurrez janztea. Disforia da nire gorputza zuen gatazka-zoru izatea. Disforia da transei buruzko serie eta antzerkiak antzezten cis pertsonak ikustea eta bitartean zure aktore aritzeko ametsa urrin geratzea, ez bada porno aktorea izateko. Disforia da komunetara urdu-

ri sartzea. Disforia da ginekologoarenera joan eta barrezka irtetzea, negar ez egitearren.

Disforia da azazkalak pintatu eta zure nor-tasuna zalantzan jartzen dizutenean. Disforia da ez heteroek, ez gayek, ez lesbianek desiatuko ez zaitutenean, baina gero onartzen zaituztela esaten dizutenean. Disforia da legeak babeska eskaintzen dizutenean baina gero horrek ez duenean ia ezertarako balio. Disforia da haur batzuk atzetik jarraika dituzunean haien artean eztabaidatzen ez dakitelako mutila ala neska zaren, eta haien gurusoak berdin daudenean. Disforia da arropa erostera joan eta zaila denean. Disforia da trans zarella esaten duzunean tentsio eta beldur aurpegi ikaragarriak nabaritzea. Disforia da nire lagun emakume transak poliziek sistematikoki gaiztotzat jotzen dituztenean eraso egin dieten arren. Disforia da trantsizionatu aurreko bizitzako beldur, bullying eta autoboikot guztiak gogoratu eta orain trans zarella dakizunean enkajatzten duela jakitea.

Disforia da hondartzan jasotzen ditugun begiradak. Disforia da dokumentuetan nire sexua eskatzen didatenean –gizonezkoa ala emakumezkoa–. Disforia da NAN txartela aldatu ezin eta eskatzen dizuten lekuetan arazoak izatea. Disforia da gizonen kartzelan preso egon zen emakume bat ezagutzen dudanean. Disforia da orain trans naizelarik ezin

dudala atentzio gehiago deitu esaten didatenean. Disforia da emakume transak hiltzen dituztenean eta gainera telebistan ez denean ezer agertzen. Disforia da ezagutzen dituzun trans gehienok, denok ez bagara, trastornoren bat diagnostikatuta edota psikiatrizatuak garelako konturatzen zarenean, eta gainera horregatik Osakidetzako genero-unitatean zalantzagarrigoak garenean.


Disforia da konfinamendu honetan trans pertsonak jaso dituzten eraso berri duzunean, baina ez denean beste gauza guztiak bezain garrantzitsua. Disforia da zure espazio seguruak murriztak direnean. Disforia da emakume bizardunak espazio feministetatik botatzea. Disforia da kuriositatez zure “benetako izena” zein den galdetzen dizutenean. Disforia da ez dituztenean emakume transak enpresetan lanean nahi, edo McDonalds-en lanean, edo emazte moduan, prostituzioan baizik.

Disforia da sexua nola praktikatzen dudako galdetzen didatenean. Disforia da emakumeak bakarrik erditu daitezkeela pentsatzea. Disforia da transfobia hori guztia gure gorputzetan infektatzen zaigunean.

Disforia da cisforia.

Baina ez dizkigute maitasuna eta euforia kenduko.

Mikel Uribelarrea Losa



Positiboak, maskarak eta neurri bereziak protagonista udako "normaltasun berri"an

Uztailaren 16az geroztik, EAEn maskara erabiltzea derrigorrezkoa da kalean eta espazio publiko itxietan, "pertsonek arteko distantzia edozein izanda ere"



Arg.: Aritz Manzisidor

Azken aste edo egunetan COVID-19 gaitzaren hamarnaka kasu azaleratu direla eta, neurri gogorragoak hartu berri dituzte agintariek. Nekane Murga Osasun sailburuak uztailaren 15ean eman zuen aginduaren berri; Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan derrigorrezkoa da maskara janzteko gune publiko guztietan, "pertsonek arteko distantzia edozein izanda ere"; gainera, ohartarazi du ez dutela baztertzeko aurrerago "neurri gehiago" hartzea.

Jaurlaritzaren dekretu berriak agintzen du ostalaritzan, taberna, jatetxe eta elkarte gastronomikoetan maskara erantzi ahal izango dela soilik jan edo edateko unean, beste une orotan jantzi eduki behar da. Gainera, mahai baten inguruan gehienez ere 10 pertsona egon ahal dira, barruan nahiz kanpoan.

Horrez gain, aginduak dio egungo egoera iraun eta dekretu hori indarrean egon bitartean, ez dela ordutegiak luzatzeko beste baimenik emango, eta eman direnak ondorioz gabe utziko direla. Neurri horrek ostalaritzako establezimendu eta zerbitzuetan, jatetxeetan, txokoetan eta elkarte gastronomikoetan du eragina, bai eta diskoteketan eta gaueko aisialdiko gainerako establezimenduetan ere.

Era berean, debekatuta dago gazte-lokaletan eta antzeko ezaugarriak dituzten espazioetan edozein jardura egitea.

Hondartzetan eta igerilekuetan ere maskara erabili beharra dago joan-etorrietan, soilik kendu ahal izango da etzan edo eserterakoan, eta hau ere pertsonen artean metro eta erdiko tartea gordeta. Kirola egiteko orduan edo naturguneetan ere ken daiteke.

Osasun sailburuak dio neurri horiek hartzeko arrazoiak honako hauek direla: COVID-19aren bilakaera epidemiologikoa, eta, udaldia hasi denean, "normalitate berri"an sartu izanak pertsonen pilaketak ekarri dituela eta dakartzala egiaztatu dela eta, hala, ez direla ari zaintzen aisia-ekintzen eta kolektiboan gozatzaren inguruko prebentzio-neurriak. Aipatu duenez, "ezin diogu birusari berriz ere abantaila hartzeko aukerarik eman", eta erantzukizun hori erakundeena eta herritarrena da.

Osasun agintariak agerraldi gehiagoren berri ematen ari dira azken egunotan. Deban, esate baterako, testek denera lau positibo berri utzi zituztela jakinarazi zuten uztailaren 10ean. Hamaika eguneko itxialdia ezarri zieten pertsona horiei eta azken hauteskondeetan ezin izan dute botoa eman.

Hondartza dinamiko

Bizi dugun egoera berezia dela eta, aurten uztailaren 1ean hasi da hondartza denboraldi ofiziala Deban, Gipuzkoako gainontzeko hondartzetan bezala. Gainera, COVID-19ak eraginda, neurri bereziak hartu dira. Neurri horien artean garrantzizkoenak hondartzaren erabiltzaileek bete beharreko arauak dira. Hondartza dinamiko izendatu dituzte Santiago eta Lapari hondartzak, hots, hiru ordu egon ahal izango gara hondartzan gehienez, hamaka eta aulkiak eraman ahal izango ditugu bertara eta ur-kirolak egin ahal izango ditugu, baina marea behean dagoenean bakarrik paseatu edo korrika egin ahal izango dugu. Eguzkitakoak (sonbrillak), berriz, ezingo dira eraman eta taldekiroletan ere (boleibola, futbola...) ezingo da aritu, 11:00etatik 19:00etarako tartean ez behintzat.

Hori guztia behar bezala betetzen dela zaintzeko bi hondartzain daude aurten Debako Santiago eta Lapari hondartzetan. Horien funtzioa, hondartzako erabiltzaileei osasun-neurriak betetzeko irizpideen eta aholkuen berri ematea eta edukiera zaintzea da. Hondartzaren erabilerarako irizpide eta aholkuak, panelen bidez eta megafonia bidez ere ematen dira.

Martxan dago jada momentu errealean hondartzaren edukierari buruzko informazioa ematen duen "Nik Hondartzak" aplikazioa. Aplikazio hori mugikorrera deskargatu daiteke eskura izateko. Okupazio-maila kolore-kode baten bidez irudikatzen da: berdea (okupazio baxua), horia (okupazio ertaina) eta gorria (okupazio altua). Hondartzaren edukieraren informazioa zuzenean emateko bandera bat ere eskegitzen dute sorosleen dorrean.



Zev Hoover argazkilariak errealitatearen beste ikuspuntu bat eskaintzen digu, pertsona ñimiñoak agertzen baitira haren argazkietan, ezereza izango balira bezala. Txikia izateak ez die amets handiak betetzea oztopatzen baina. Argazkiak hartu eta gure istorioak asmatu ditugu. Zuk ere gauza bera egin dezakezu: zein da zure istorioa?

IRUDIEI ISTORIOAK JARTZEN

HEGAN EGIN NAHI DUT



Ibai dut izena, hamalau urte ditut eta ohe gainean nago pentsatzen. Bart gauean izandako ametsen pentsatzen. Ametsen, hegan nengoen.

Ohetik jaiki naiz eta gosaria prestatu dut. Gosaltzen nengoen bitartean, hegan egin nahi dudala erabaki dut. Nire amari galdetu diot ea hori nola egin dezakedan eta hegazkinez egin daitekeela

erantzun dit. Ideia hori ez zait asko gustatu, nik libreago egin nahi dut hegan. Orduan burura etorri zaidan aukera bakarra paperezko hegazkin batean hegan egitea izan da. Berehala paper bat hartu dut eta lanari ekin diot. Hau bukatu ostean, etxe atzeko mendira joan naiz, hirura arte kontatu eta salto egin dut. Hegan nenbilen, amak esnatu nauen arte.

UXUE MAITEA...

Egun batean, Unai izeneko mutiko bat herriko nekazariarengana abiatu zen dozena bat arrautzaren bila. Etxera bueltan zihoan bitartean, etxe batetik neskatxa bat begiratzen ari zitzaiola konturatu zen; inoiz ez zuen hura herrian ikusi.

Etxera iristean, familia osoarekin afaltzera joan zen. Mahaian jarrita zeuden denak eta Unai bat-batean hau esan zuen: "Zein da Agirretxe kalean 16. zenbakia duen etxeko neskatxa?". Gurasoek elkarri begiratu zioten eta amak hau esan zion: "Uxue du izena. Neska horrek osasun-arazoak ditu, bitzta gogorra izan du, eta gurasoek ez dute nahi beren umea kalera irteterik, jende

gaiztoa dagoelako kanpoan. Herrian minbizia duela diote orain". Unai triste jarri zen hori entzutean eta Uxueri gutun bat idaztea erabaki zuen.

Hurrengo egunean, bere etxe parean zegoen postontzian utzi zuen gutuna. Egunak pasa ondoren, elkarri gutunak bidaltzen zizkioten, baina, egun batean, Unai ikusi zuen azkenengo gutuna ez zuela jaso. Ez zion garrantzirik eman. Egun batzuen buruan, postontzian karta pila bat zeuden. Unai arduratzen hasi zen eta tinbrea jo bezain laster, pertsona nagusi bat agertu zen. Triste zegoen agurea eta Unairi Uxue hil egin zela aitortu zion. Unai korri-

ka hasi zen malkoak masailean zehar erortzen zitzaizkiola, etxera bidean. Egun horretatik aurrera, egunero eramaten du gutun bat Uxueren postontzira eta han egoten da postontziaren alboan, eserita, minutuak igaro ahala pentsatzen.



Prentsa tailerra 2019-2020

Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko Garcia, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:



babesleak:



TEKLEN SOINUEN INDARRA



Banekien iritsi zela bere momentua, bihotzak esandakoa

ÑIMIÑO

Herrixka batean bizi zen Jakes, mutil gazte bat. Oso alaia zen, apur bat lotsatia eta batzuetan bakartia ere bai, baina oso zoriontsua. Gustuko zuen familia eta lagunekin denbora pasatzea, baita gauza berriak asmatzea ere. Ilea marroi kolorekoa zuen, begiak bezala, eta azala orri bat bezain txuria, pekaz beteta.

Denbora aurrera joan ahala hasi zen bere bizitzako momenturik okerrera edo, berak pentsatzen zuen bezala, bere infernua. Hori guztia 14 urterekin hasi zen, nerabe zenean, jendeak esandakoak asko eragitearekin eta ziurtasun eza areagotzearekin batera. Txikitatik bere lagunentzako taldean txikienetarikoa izan zen, eta berak bazekien hori. Baina une har-

egin behar zuela eta ez inguratzen zuen jendeak esandakoa. Ez zuen amore emateko intentziorik, burua tentetu eta bere ametsa lortzeko lehenengo pausoa emateko prest baitzegoen. Beno, beno... Has gaitzen hasieratik... Bestela ez duzue ezer ere ulertuko eta.

Otsailaren 3a zen, egun hotza eta goibela. Hala ere, oso egun zoriontsua zen niretzat. Jane jaio zen, nire alaba, negar sakon eta amaiezina zuena.

Urteak pasa ahala, igarri nion

tan bere arazoa handiagoa zen, ez zen hazten! Bai, Jakes ñimiñoa zen.

Ez zitzaion, ordea, asko axola ñimiñoa izatea, inguruko jendea berarekin sartzen hasi zen arte. Orduan hasi zen bere infernuri handiena. Egutero entzuten zuen bere altuerari buruzko komentarioren bat edo ñimiñoa izateagatik ez omen zituen gaitasunei buruzko besteren bat. Nazkatuta zegoen, ezin zuen gehiago. Hori ikusita eta gauza berriak asmatzea atsegin zuenez, hegazkin ñimiño bat egitea erabaki zuen. Asko landu behar izan zuen, ahalegin handia eta denbora asko eskaini behar izan zizkion horri, baina merezi izan zuen.

Hurrengo egunean, hegazkinarekin eskolara iritsi zenean, inguruko

idazle izan nahi zuela. Nik gutxitan idazten nuen, baina kasu horietan amonaren idazteko makina erabiltzen nuen. Teklen soinuek txundituta uzten zuten Jane, bere pentsamenduetan murgilduta. Baina inguruan asko gutxiesten dituzte idazleak, baita familia, herritar eta lagunek ere. Dena dela, Janek bere ametsari eutsi zion, gaur arte. Gaur 22 urte bete berri ditu eta erabakia hartu du. Besteen iritziak alde batera utzi eta bere ametsa lortuko duela: idazle izatea.



jendea harrিতuta gelditu zen, ez bere itxuragatik, horri ez baitzion Jakesek garrantzi handirik eman, hegazkina egiteko gai izan zelako baizik eta, hori gutxi balitz, jolasteko ere balio zuelako. Horrela erakutsi zion jendeari garrantzia duena ez dela fisikoa, nortasuna baizik; pertsonak, ñimiñoak izan arren, denerako gai direla.

AMESTEA LIBRE



Pianista izatea zuen amets Garikoitzek, Gari lagunentzat. 10 urte zituela Frantziara joan behar izan zuen bizitzera familia kontuengatik.

Oso lotsatia zen eta jende aurrean jotzeak edo norbaitek hura instrumentua jotzen ikusi edo entzuteak izugarritzko beldurra ematen zion. Pentsatu edo imajinatzearekin bakarrik sabela nahasten zitzaion.

Kontua da Garik musikari profesionala izan nahi zuela: ballet baterako abestiak konposatu, orkestra sinfoniko batean jo, disko bat atera... Baina nola? ez bazuen inork ikustetik nahi? Horretarako aurkitzen zuen konponbide bakarra amestea zen eta gehienetan antzeko gauzak amesten

zituen: pertsona ñimiño bat zela esnatzen zen, atzamar baten altuerako gizontxo bat. Esnatu, gosaldutxatu, jantzi eta, egutero bezala, lan egiten zuen kontserbatoriora abiatzen zen. Piano klaseak eta, noizean behin, kontzertuak ematen zituen. Oso ezaguna zen mundu guztian eta jendeak asko maite zuen.

Esnatzen zenean, gertatutakoa egia zela pentsatu nahi izaten zuen, baina... ez. Eta amesten jarraitu nahi izaten zuen, ametsetan dena libre delako. Amestea libre baita.

UZTAILAK 24, OSTIRALA

-22:00. **Bertso saioa:** Unai Iturriaga, Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza eta Julio Soto, Euskal Jolas pilotalekuan (*Iturri Ondoan*).

UZTAILAK 27, ASTELEHENA

-21:30. *"Lucha ambiental y por el territorio en Guatemala"* **proiektzioa** eta Yolanda Oqueli aktibista indigenaren hitzaldia, Gaztetxean.

UZTAILAK 29, ASTEAZKENA

-18:30. **Bisita gidatua:** Flysch Beltza. Informazioa: www.geoparkea.eus.

-22:00. **Asteazken akustikoak:** Debakomix, Kultur Elkarteko plazan.

UZTAILAK 30, OSTEGUNA

-13:30. **Bisita gidatua:** Debatik Zumaiara itsasontziz. Informazioa: www.geoparkea.eus.

UZTAILAK 31, OSTIRALA

-22:00. *"Sagartu"* **ikuskitzuna**, Euskal Jolas pilotalekuan (*Iturri Ondoan*).

ABUZTUAK 2, IGANDEA

-17:30. **Bisita gidatua:** Debatik Zumaiara itsasontziz. Informazioa: www.geoparkea.eus.

ABUZTUAK 3, ASTELEHENA

-17:30. **Bisita gidatua:** Debatik Zumaiara itsasontziz. Informazioa: www.geoparkea.eus.

ABUZTUAK 5, ASTEAZKENA

-22:00. **Asteazken akustikoak:** Erroka Taldea (Hernani), Kultur Elkarteko plazan.

ABUZTUAK 6, OSTEGUNA

-20:30. **Kontzertua: 37. Udako Musikaldia.** Pablo Mezzelani, Loreto Aramendi eta Pedro Aguinaga, Andra Mari elizan.

ABUZTUAK 7, OSTIRALA

-17:00. **Odol emileen hitzordua**, Luzaro ikastetxean.

-22:00. **Musika kontzertua:** Izaki Gardenak, Euskal Jolas pilotalekuan (*Iturri Ondoan*).

ABUZTUAK 12, ASTEAZKENA

-22:00. **Asteazken akustikoak:** Itsaso eta Martina, Kultur Elkarteko plazan.

ABUZTUAK 20, OSTEGUNA

-20:30. **Kontzertua: 37. Udako Musikaldia.** Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal, Andra Mari elizan.

Artile-bilketa

-Hainbat eragilek elkarlanean kudeatuta, artilea bilduko dute Gipuzkoa osoan uztaileko bigarren hamabostaldian, eta **Debabarreneko artzainek uztailearen 22an izango dute horretarako aukera**, Azpeitian. Artilea eman nahi duten artzainek 696433602 telefonora deitu beharko dute hitzordua hartzeko.

Irteera gidatuak

-Abuztuaren 3an, 18an, 19an, 20an eta 21ean **Flysch at Night irteera gidatuak** egingo dira, Debanaturak antolatuta. Safari gautarrak izango dira, marearteko zabalgunean, 22:00etatik 00:00etara. Informazio gehiagorako: 695 783 656 telefonoa, debanatura@hotmail.com edo www.debanatura.eus.

Beka-deialdia

-**XV. Tene Mujika beka** sortu dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak. 6.000 euroko diru-laguntza emango diote irabazleari. Abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako: www.deba.eus ataria.



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!



Zuhartza

943 191 383

berriketan@zuhartza.com

ZAINZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **uztailak 27, 28, 29, 30.**
abuztuak 14, 15, 16.

Burgoa Zuazo: **uztailak 31.**
abuztuak 1, 2, 10, 11, 12, 13.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 18 eta 25 / abuztuak 15 eta 22
BURGOA ZUAZO: abuztuak 1, 8 eta 29

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

MARIE CASTRO IRIBARREN



- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

A
D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPIZKOA)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 21/05/049
NIVEL 2

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxes: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com


lerarena
ekodenda

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 53 95 20- E-mail lerarena@gmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



k

kutxabank

sasoiko

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA

TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843





Ikasiko dugu beste edozein hizkuntza,
ukitzeko munduaren beste aldeko printza,
ezagutzeko urrutiko hitza,
zabaltzeko gure jakintza.

Beste zenbait azentu ahoskatu,
esaldien doinu ezberdinak probatu,
ongi esan, gaizki esan, erratu,
beste herrialde batzuetan komunikatu.

Baina mintzaira besterik ez da izango.
Beste hizkuntzetan doinu bat abestean,
abestirik ederrena entzutean,
bihotzak ez dit buelta emango.

Eta ordea, urruneko herrialde batean,
ingurua euskarri ez denean,
euskal kanta bat bertakoei entzutean
urtuko naiz haien aurrean.

Erbestean hizkuntza mantendu dutenak,
sekula berba ahaztuko ez dutenak,
etxean besterik ikasi ez dutenak,
eta hala ere... galtzen utzi ez dutenak.

Hauek bai, bihotza dantzan jartzen didatenak...

Ainara Sedano

euskararen taupadan
bihotzak dantzan

Zuhotza
euskara elkartea *mmz* deba